

# Euskarazko herri-aldizkarien funtzioak hirugarren milurtekoaren atarian

**Idoia Camacho Markina**  
Informazio-Zientzietan Doktorea, Kazetaritza atalean

Artikuluaren egileak 90eko hamarkadan euskarazko herri-aldizkariak izan duten bilakaera aztertu du bere doktore-tesian: herri-aldizkarien loraldian gertatutakoa, hain zuzen ere. Ondoko orrialdeetan agerkari horien funtzioak zeintzuk diren azaltzen da, bai eta euskararen normalizazio-prozesuan izan duten garrantzia ere. Artikulu osoa aipatutako aldiaren oinarritzen bada ere, azken atalean hirugarren milurtekoaren lehenengo urteetan euskarazko herri-aldizkarietan izan diren aldaketak aztertzen dira.

In his doctoral thesis the author has analysed the evolution of local magazines in Basque during their best period. The work presents the functions of these publications and also it remarks the importance they have had in the normalization process of the Basque language. The all article is based on the mentioned period, but also it analyses changes these local basque magazines have shown during the first years of the third milenium.

## 1. Herri-aldizkarien aurrekariak

Gaur egun ezagutzen ditugun tokian tokiko aldizkarien aurrekariak herrietan maiztasun eta iraupen aldakorrek argitaratzen ziren orri parrokialak eta berripaperak ditugu, herritar guztioi zuzenduta zeudenak. Euskal Herriko zenbait herritan maiztasun eta iraupen aldakorrek argitaratzen ziren orri parrokialak. Herriko apaizak edo maisuak idazten zituen, euskaraz edo gaztelaniaz, eta gaiak hurbil-hurbilekoak ziren, berripaperen kasuan bezalaxe.

Espainiako II. Errepublikan herri edo zonalde txikiko aldizkariak sortu ziren. 1931.ean *Arrati'ko Deya* agertu zen, Eulogio Gorostiaga apaiz zeanuriarraren bultzadaz. 1931 eta 1932 urteetan argitaratu zen inguruko berriak euskaraz zabaltzen zituen aldizkari hori, harik eta bere sortzailea hil zen arte. Informazio lokala hedatzen zuten beste bi aldizkari aipa daitezke, euskaraz testu batzuk baino agertu ez arren: *Rentería* (1922-1936) eta *Oarso* (1930-1933), Erreterian argitaratzen ziren urtekariak. Azkenik, eskualdeko prentsaren barruan *Bermeotarra* aipatu behar dugu, Bizkaiko kostaldeko herri horretan sortutako hilabetekari abertzalea, gaztelaniaz eta euskaraz idatzia (Díaz Noci, 1995: 181, 182, 210).

Gerra Zibila baino lehen horrelako euskal aldizkari lokalak bazeuden ere, 50eko hamarkadan nabarmentzen hasi zen fenomeno dugu tokian tokiko prentsarena, hurrengo hamarkadetan garapen izugarria izango zuena, bereziki euskaraz. Garai hartakoak dira *Eibar* (1952), *Ondarribi'ko Izparrak* (1956), Etxebarri-Barinagako *Gure Erria* (1957) eta Zornotzako *Sirimiri Zornozano* (1959) (Aranguren, 1999: 90).

Kasu gehienetan, elizaren babesean sortu ziren tokian tokiko aldizkari haiekin batera, egunkariak eskaintzen zituzten kronika lokalak ere beste erreferentzia-puntu garrantzitsu bat izan ziren gaur egungo euskarazko herri-aldizkariak sortzeko (Aranzabal, 1998).

Euskarazko prentsa lokala, gizarte- eta kazetaritza-fenomeno moduan, 1988ko abenduaren 2an sortu zen, *Arrasate Press* astekariaren lehen zenbakiarekin batera, «nahiz eta aurretik anitz aitzindari izan, hala nola *Ttipi-Ttapa* (Bortziri eta Malerreka), *Auskalo* (Oñati), *Aske* (Lezo), *Nondik* (Ataun), *Hots* (Legazpi), *Kontxo* (Tolosa), *Nontzebarri* (Mungia), *Plazara* (Hondarribia), *Sustraiak* (Lekeitio), etab.» (Zalakain, 1994: 56). Horiekin batera beste agerkari batzuk ere aipa daitezke: *Aitziber* (Urdiain), *Leaibar* (Oiartzun), *Orria* (Andoain), *Plazaola* (Leitza)... Baina aldizkari horiek guztiek ez zuten lortu euskarazko prentsa lokalak gaur egun duen indarra eta zabalkundea.

## 2. Herri-aldizkarien garapena

Euskal Herrian, bereziki Hego Euskal Herrian, gero eta ugariagoak dira herri-prentsaren aldeko apustua egiten duten herriak. Horren lekuko dira azken urteotan txoko eta bazter guztietan sortzen ari diren herri- eta eskualde-aldizkariak.

«Euskararen Normalkuntzarako Legea indarrean jarri aurretik, lehendik zetozen aldizkari lokalak era zaharrean eginak ziren» (Muxika, 2000: 128). Baina 1988

urtean jartzen da azkenaldian euskarazko prentsa lokalean suertatu den fenomeno garrantzitsuaren abiapuntua, *Arrasate Press*-en sorrera-urtean. Euskarazko tokian tokiko prentsaren hastapena hobeto ulertzeko 80ko hamarkadan gertatu ziren bost fenomeno garrantzitsu aipatu behar direlakoan nago (Aranzabal, 1998):

- Autoedizioaren sorrera. 80ko hamarkadaren erdialdean autoedizioaren iraultza hasi zen, eta ordura arte gutxi batzuen eskuetan zegoena oinezkoon eskura jarri zen. Horren kariaz, asko bizkortu eta merkatu zen aldizkari bat egiteko prozesua.
- Euskararen batasuna. 80ko hamarkadaren bigarren erdialdean euskara batua finkatuta zegoen, eta haren erabilera zabaldua zegoen bai irakas-kuntzan bai eta administrazioan eta komunikabideetan ere.
- Euskara-taldeak. Euskal Herriko hainbat herritan euskara-taldeak sortzen hasi ziren garai hartan, euskararen normalizazioaren alde lan egiteko asmoz. Hasieran, lanik handiena kontzientziatze-lana izan bazuten ere, denbora pasa ahala, funtzio berriak hartu zituzten, besteak beste euskarazko komunikabideak sustatzea. Izan ere, herri-aldizkari asko eta asko euskara-taldeen itzalpean plazaratu dira.
- Herri-erakundeen irekitasuna. Udalak eta Foru Aldundiak demokratizatu ondoren, eta Eusko Jurlaritzak zein Nafarroako Gobernua sortu eta gero, euskara eta euskal kulturarekiko jarrera irekiagoak azaldu ziren erakunde horietan.
- Euskal kazetari berrien agerpena. 80ko hamarkadan kazetari profesional euskaldunen belaunaldi berriak agertu ziren, eta horietako askok herri-aldizkarietan lan egingo zuten. Ordura arte euskal kazetaritza larru gorritan zegoela esan daiteke.

1988. urtetik hona aldizkariaren kopurua eta tirada biziki ugaldtu da. Izan ere, 1997. urtearen amaieran argitaratu ziren datuen arabera, EAEn eta Nafarroan euskarazko eremu urriko prentsan «zortzi astekari (33.500 ale), zazpi hamaboskari (24.000 ale), 23 hilabetekari (53.000 ale) eta orotara 350.000 irakurle baino gehiago» (Muniozguren, 1997: 75) aurki daitezke. Gainera, maiztasun handiagoko beste 14 aldizkari daude. Guztira, 52 herri-aldizkari, 125.350 aleko tirada zutenak (Aranzabal, 1998).

Hori bai, herri-aldizkariaren hedapena ez da homogenea izan: eskualde eta herrialde euskaldunetan duten presentzia zonalde erdaldunetan dutena baino askoz handiagoa da. Edozelan ere, ezin da ukatu euskarazko tokian tokiko prentsaren fenomenoaren garrantzia, ugaltzeaz gain, existitze soiletik kalitateko prentsa bihurtzera pasatu baita.

Aipatutako arrakasta horren arrazoi nagusia gertutasuna da, arlo honetan murgiltzen diren adituen ustez. Herri-hedabideen arrakastaren oinarria informazio lokalaren garrantzia izan daiteke, jendeak gustuko baitu auzokoari zer gertatzen zaion jakitea. Horretan datza, hain zuzen ere, prentsa lokalaren eginbeharra: herriarekin lotura duten gaiei, pertsonaiei, ekintzei eta taldeei buruzko informazioa eskaintzea.

Jon Sarasuak (1996b: 24), formularen hurbiltasunaren arrazoi horrekin batera, beste bi giltzarri adierazten ditu herri-aldizkarien garrantzia azaltzeko: «produktuaren doanekotasuna eta maila horretako kompetentziarik eza, lidergoa».

Lehenengo puntuari dagokionez, tirada urriko argitalpenen kasu gehienetan doakotasunaren formula derrigorrez ezarri behar da, «no porque sus responsables la consideren la idónea para sus intereses sino porque creen que los lectores no van a pagar por ella»<sup>1</sup> (Cantalapiedra, 1996: 159). Euskarazko herri-aldizkarien kasuan, aldiz, ez dirudi arazo berbera gertatzen denik, agerkari batzuetan irakurleek diru-laguntzak emateko deiak agertzen baitira, eta horrela harpidetza ordainduaren bidea urratzen ari dira.

Aldizkari hauek dohainik banatzeak aldeko eta kontrako argudioak sorrazten ditu. Batetik, herri-aldizkarigintzaren garrantzia gutxitzen du Sarasuaren ustez (1996a: 118): «irakurle-kopuruaren datuetatik bere pisua eta eragina ondorioztatzerakoan kontuz ibili behar da: gehienetan doan banatzen dela eta ez duela egunkari bat erosten duenaren mailako irakurketarik eta baliorik jasotzen». Hala ere, nik uste dut ideia hau kulturala dela, tradizionalki doako prentsa kalitate txarraren sinonimoa izan bada ere, gaur egun ideia hori aldatzen ari baita. Guztiok dakigu telebista, irratia eta Internet ere dohainik hedatzen direla, eta horrek ez daukala zerikusirik euren kalitatearekin. Gainera, doako prentsa garrantzia hartzen ari da munduko hainbat herritan. Herri eskandinaviarrak aitzindari dira arlo honetan, eta bertan garraio publikoetan edo kalean banatzen diren egunkariak kalitate onekoak dira eta arrakasta handia lortu dute<sup>2</sup>.

Bestetik, «doanekoa izateak badu, herri mailan, zenbait abantaila: banaketa pertsonalizatzeko aukera handiagoa ematen du, askoz ere jende gehiagorengana hel liteke eta hagitz publizitate eta diru gehiago lor lezake bestela baino» (Aranzabal, 1992: 72).

Esan bezala, euskarazko herri-aldizkariak beste hedabide handiagoek eskaintzen ez dutena zabaltzen dute: tokian tokiko informazio luze eta zabala eta, gainera, euskaraz. Alde horretatik, prentsa lokalaren mailan liderrak dira, herri-aldizkari askok beren esparruan gehien irakurtzen den produktua izatea lortu baitute. Beste kasu batzuetan, horrelako aldizkariak agertzen diren herrietan, gertuko informazioa banatzen duten bakarrak direla esan beharra dago, eta, ondorioz, lehiakiderik gabe argitaratzen dira. Horrenbestez, garatu gabe zegoen esparru hau euskarak bete zuen eta ez erdarak, gehienetan gertatzen den bezalaxe.

---

1. «Ez arduradunek euren interesetarako egokia dela uste dutelako, irakurleek beraren truke ez dutelako ordainduko uste dutelako baizik». Egileak itzulia.

2. Espainiako estatuan ere, orain dela gutxira arte informazio orokorra zabaltzen zuten komunikazio-taldeak edo enpresak doako prentsaren esparrua garatzen ari dira: *Correo* Taldea Euskal Herrian; *Hersant* Katalunian eta Euskal Herrian; *United Newspapers-UPN* Katalunian; *Segundamano/Deplana* Taldea Madrilan, Iruñean, Valladoliden eta Gironan; eta *Pool de medios* estatuko hainbat herritan (Picos Freire, 1995: 614).

### 3. Euskarazko herri-aldizkarien ezaugarriak

Arestian aipatu dugunez, herri-aldizkarien ezaugarriak nabarmenena tokian tokiko albisteetan oinarrituta egotea dela esan daiteke: gertutasuna, hain justu. Horri Jon Sarasuak aipatzen duen doakotasuna gehituko diogu, baina horrekin batera, herri-aldizkaritzat jotzeko argitalpen batek bete behar dituen beste ezaugarri batzuk ere aipa ditzakegu.

Hizkuntzari gagozkiola, prentsa lokalean euskararen presentzia nabarmena da eta agerkari gehien-gehienak, batez ere azken urteotan sortu direnak, euskara hutsean idatzita daude. Beste aldizkari batzuk elebidunak dira (euskara eta erdara), eta badira beste batzuk erdaraz idatzitakoak; baina azken bi multzo horiek gutxiengoa dira. Hau izango litzateke, beraz, herri-aldizkarien hirugarren ezaugarria: euskaraz idatzita egotea.

Aipatu behar da, batetik, euskarazko herri-aldizkari gehienak irabazi-asmorik ez duten euskara-elkarteek sortuak direla; hortaz, normalean herritarren parte-hartzea ziurtatzen da. Bestetik, administrazioaren inplikazioa ere jazo ohi da (udala, Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua), batez ere diru-laguntzak emateko orduan. Ondorioz, esan dezakegu esparru honetan beharrezkoa den erakundeen eta herritarren arteko elkarlana gertatu egiten dela. «Diru-laguntza publikoen artean udalek bertako aldizkariari emandakoak dira garrantzitsuenak (%56). Eusko Jaurlaritzakoak eta Nafarroako Gobernuakoak datoz gero (%28) eta Foru Aldundiak azkenik (%16)» (Aranguren, 1999: 226).

Eduki aldetik, herri-agerkariak arinak eta erraz irakurtzekoak izan ohi dira, «helburua aldizkari herrikoi, sinple, zabal eta irakurteraza egitea baita, eta ez betiko euskaltzale militante edo kulturzale minoritarioentzat» (Agirreazaldegia, 1993: 10). Ildo horretan aipatu beharrekoa da, prentsa-mota honetan, oro har, interes orokorreko informazioa ukitzen dela; ez dira aldizkari kulturalak edo entretenimendukoak, baizik eta gai guztiak jorratzen dituztenak.

Joan diren 20-30 urteetan belaunaldi berri bat sortu da EAEn batez ere, euskara eskolan ikasi duena. Hauetako askori, ordea, nabaritzen zaie ez dutela euskara egiten etxean edo kalean eta, horren ondorioz, hutsune handiak dituzte hizkuntzan. Bestetik, betiko euskaldun petoak daude, inoiz euskaraz irakurri ez dutenak. Herri-aldizkariak bien premia asetzeko elementuak dauzkate. Lehenbizikoentzat kirolak, aisia, etab. Bigarrenak albiste laburrak, txutxu-mutxuak eta argazki oinak, besteak beste, aurkitu ahal dituzte<sup>3</sup>.

Bestalde, herri-aldizkarien beste ezaugarri nagusia euskarazko publizitaterik izatea da. «Prentsa lokalak inoiz publizitaterik egin ez duten merkatariek jarri ditu publizitatea egiten. Euskaraz publizitaterik ezin zitekeela lortu uste zenean, urtebetean bide horretatik hogeitaka milioi lortu dituen astekaririk sortu zaigu, eta badira banaka batzuk diru-iturri nagusizat dutenak. Euskarak ere saltzen du, nahiz eta orain arte euskara baztertuta egon den publizitatearen munduan» (Elkoro-berezibar, 1992: 16).

---

3. Josune Ariztondo (Hizkuntza Politikarako Sailburuordea), *Arrasate Press* 431. zenbakia, 1998ko abenduaren 4koa; 42. or.

Gaur egun, beraz, euskarazko agerkari lokal guztietan, neurri handiago edo txikiagoan, publizitatea agertzen dela esan daiteke, eta publizitate hori, jakina, euskaraz idatzitakoa da.

Maiztasunari dagokionez, euskarazko prentsa lokalean, orain dela gutxira arte, ez zegoen egunkaririk, ezta astean birritan edo hirutan agertzen den agerkaririk ere, Katalunian gertatzen den bezala. Hemen dagoena, batez ere, astekariak, hamaboskariak eta hilabetekariak dira, nahiz eta maiztasun handiagoko herri-aldizkari batzuk ere egon. Horrenbestez, gaurkotasuna, hau da, herriari buruzko informazio zuzena eskaintzea, prentsa lokalaren beste ezaugarri bat da.

Tokian tokiko prentsak euskal irakurleongan itzelezko eragina duela esan dezakegu, herri-agerkarietarako, jendea euskaraz gero eta gehiago irakurtzen hasi baita. Izan ere, argitalpen hauen beste ezaugarri garrantzitsua da euskaldun peto-petoentzat zein euskara ikasten ari direnentzat eginak izatea. Eta hori gutxi balitz, erdaldun asko ere hurbiltzen dira aldizkarietara, gainetik begiratzeko baino ez bada ere. Herri osora heldu nahi dute, hortaz, eremu urriko agerkariek euskararen unibertsoak bere baitan duen pluraltasuna aldizkarietara orrietan islatzen dute; eta hori lortzeko, erabat garrantzitsua da independentzia politikoa eta ideologikoa mantentzea. Izan ere, «jendeak somatzen badu aldizkaria norbaiten edo zerbaiten alde ari dela, horrekin identifikatzen ez diren guztiak, automatikoki, kontra jartzen dira eta aldizkariak sinesgarritasuna galtzen du. Aldizkaria errebindikatzailerik izan daiteke, baina inolako siglekin identifikatu gabe» (Askoren artean, 1992: 59).

Kontuak kontu, eta arlo hau oso heterogeneoa izan arren, honako hauek dira Euskal Herrian argitaratzen diren herri-aldizkarietarako dituzten ezaugarriak nabarmenenak: tokian tokiko albisteetan oinarrituak, doakoak, euskaraz idatziak, erakunde publikoen diru-laguntzaz eta publizitateaz finantzatuak, eduki arin eta irakurteraz hedarazleak, informazio orokorraren hedarazleak, astekariak, hamaboskariak edo hilabetekariak, herritar guztioi zuzenduak eta gaurkotasunera mugatuak.

Azkenik, herrialde bakoitzean argitaratzen diren aldizkari kopuruen arteko aldea handia dela esan beharra dago. Desberdintasun horrek «ez du zerikusirik herrialde bakoitzak duen biztanle kopuruarekin, ez eta euskaldun kopuruarekin ere. Aldagai horiek baino esanahi zuzenagoa izan dezakete euskaldunek elkarrekin harremanak izateko dituzten aukerak eta daukaten ekimenak» (Muxika, 2000: 128). Aldizkari lokalak geografikoki oso kontzentratuak agertzen dira: «lehenengo, Gipuzkoa nabaritzen da aldizkari kopuruz eta baita tiradaz ere; bigarren, Intxorta mendiak babesten dituen inguruko bailarak nabaritzen dira. Durangaldea, Deba Goienera eta Deba Barrena eskualdeak dira, astekarietarako batez ere eta tiradaz ere bai, kontzentrazio handiena erakusten dutenak» (Muxika, 2000: 129).

#### **4. Herri-aldizkarietarako betetzen dituzten funtzioak**

Hedabideen funtzioei buruz hitz egitean, irakurleriak hedabideak zertarako erabiltzen dituen adierazi nahi dugu, hau da:

Los medios de comunicación de masas intervienen en la satisfacción, y sobre todo, en la regulación de necesidades sociales fundamentales. (...) Los autores especialistas en el estudio de los medios de comunicación coinciden en la opinión de que cumplen un repertorio de funciones sociales, es decir, creen que las audiencias los utilizan para satisfacer determinadas necesidades relativas a la vida en comunidad<sup>4</sup> (Martín Serrano, 1982: 77, 223).

Oro har, eta Martín Serranok (1982: 225) aipatzen duena kontuan hartzen badugu, komunikabideen funtzioak honako hauek dira, irakurleek euren edukiak erabiltzen dituzten moduaren arabera: informazio nahikoa eta benetakoa hedatzea; informazio erabilgarria eta zentzuduna jasotzea; eduki ulergarriak, atseginak eta entretenitzekoak eskaintzea; gaurkotasun-funtzioa, azken orduko gertaerak zabaltzea, horretarako teknologia berriak erabiliz; eta informazioa modu merkean jasotzea.

Joxe Manuel Irigoienek (1993: 180), berriz, hiru puntu nagusitan laburtzen ditu komunikabideek gizartean betetzen dituzten funtziorik garrantzitsuenak: «informazioa, zerbitzu bat eskaintzea eta entretenitzea». Baina herri-aldizkarietan zentratzen bagara, hedabide guztientzat ezar daitezkeen aipatutako funtzioez gain beste batzuk ere betetzen dituztela esan behar da (Agirreazaldegi, 1993: 10), hala nola:

- Giza harremanen bultzatzaileak dira.
- Kultur eragile eta hedatzaileak.
- Publizitatearen eragileak.
- Aldizkari herrikoi, sinple, zabal eta irakurterraza egitea da helburua.
- Euskaraz irakurtzeko zaletasuna lortzea da helburua.
- Iritzi desberdinek lekua izan behar dute.

Lehenengo puntuari dagokionez, agerian dago herriko prentsak komunitatearen kohesioa bizkortzen eta indarberitzen laguntzen duela. Hala, eskaintzen duen informazioaren hurbiltasuna dela eta, elkarren arteko harremanak bultzatzeko eta herritarren sakabanaketa hausteko tresna aproposa da. «Esan nahi baita, informazio horrek herritar xumeari komunitate zehatz bateko partaide dela egunero gogorarazten diola» (Ramírez de la Piscina, 1998: 230), komunitate horretako pertsona guztiek irakurtzen duten informazio bera irakurtzen duela dakielarik.

Bestalde, herri-aldizkariak kultur eragile eta hedatzaileak direla esan ohi da. Kasu gehienetan kultur elkarten ekimenak diren aldetik, tokian tokiko agerkarrietan leku berezia betetzen dute herriko ekintza kulturalak. Gainera, euskal hizkuntza eta kultura bultzatu eta zabaltzearen ondorioz, herriaren identitatea indartzen dute, informazioaren globalizazioaren aurrean alternatiba indartsua izanik.

---

4. «Masa-hedabideek oinarritzko behar sozialen eskaeretan, eta batez ere, behar horien arautzean eragiten dute. Hedabideen arloan aritzen diren adituak bat datoz esatean funtzio sozial batzuk betetzen dituztela, hots, gizartean daramagun bizikidetzari dagozkion behar batzuk betetzeko erabiltzen dituztela hartzaileak». Egileak itzulia.

Herri-aldizkariak publizitate eragileak ere badira. Izan ere, tokian tokiko aldizkari batek «herriko merkataletxeei publizitatea egiteko aukera eskaintzen die eta herritarrengana iristeko aukera paregabea da» (Agirreazaldegia, 1993: 10). Orain dela gutxira arte, publizitatearen munduan euskara baztertuta egon bada ere, komunikabideak eta merkataria konturatu dira euskarak ere saltzen duela, eta, gaur egun, herri-aldizkari guztiek erabiltzen dute euskarazko publizitatea diru-iturritzat.

Eremu urriko prentsak duen beste helburu bat dugu produktu herrikoi, sinple, zabal eta irakurterraza egitea. Hau da, aldizkariak herritar guztioi zuzenduta daude eta, gainera, irakurketa erraztu egiten da irakurle guztiek dena ondo uler dezaten. Horrek esan nahi du informazioa modu erraz eta ulerkorrean eskaini behar zaiola jendeari, horixe baita herriko aldizkarien zeregin nagusia.

Bestalde, herri-aldizkariak duten beste funtzio bat euskaraz irakurtzeko zaletasuna lortzea da, batez ere noizean behin edo ia inoiz irakurtzen ez dutenek gustura irakur dezaten. Euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez dutenak ere kontuan hartu behar dira aldizkaria egiteko orduan, eta haiei erraztu egin behar zaie irakurketa, gorago esan dugunez, aipatutako zaletasun hori lortzeko. Ildo horretan, euskararen normalizazioaren aldeko lana egien dute euskarazko aldizkari lokalek.

Azkenik, tokian tokiko aldizkariak iritzi desberdinak hartzen dituzte beren orrialdeetan, «errespeturik galdu gabe eta gehiengoan nahiz gutxiengoan esku-bideak errespetatuz» (Agirreazaldegia, 1993: 10).

Laburbilduz, esan daiteke herri-aldizkariak «faktore kohesionatzaile eta integrazioarako tresna direla; bizitza soziala estimulatu, lagundu eta suspertzeko bitartekari. Alde honetatik ikusi behar da daukaten arrakasta. Horregatik dihardute eten barik indartzen eta biderkatzen» (Muniozguren, 1993b: 233). Tokian tokiko hedabideek gizabanakoaren inguruan dauden kolektiboen arteko gizarte-kohesioa indartzeko funtzioa betetzen dute. Toki-elkarte horiek osatzen duten kideen integrazio linguistikoan lagungarri izan daitezke, eta jarrera itxiak eta oztupo linguistikoak gainditzeko lagundu ahal dute (Zalbidea, 1995: 158).

## 5. Herri-aldizkarien elkarteak

Eginkizun desberdinak honela zerrendatuko nituzke nik: informazioa elkarri pasatzea, publizitate-merkatua elkarrekin lantzea, teknologiaz hornitzea eta beronen erabilpenaz jabetzea, kazetal prestakuntza, kazetal enpresa-prestakuntza. Arlo guzti hauek ezin ditzakegu banaka jorratu, elkarturik baizik (Askoren artean, 1992: 66).

Euskarazko herri-aldizkariak koordinatzeko elkarteak sortzeko gaia zenbaiten ahotan egon da duela hainbat urtetatik. Izan ere, 1991n egin ziren prentsa lokalari buruzko jardunaldietan sortu ziren gaietako bat da. Hurrengo urtean Arrasateko Arko multimedialak *Herri-Ko* aldizkaria jarri zuen abian, komunikazio lokalaren berri ematearekin batera herri-komunikabide desberdinek elkarrekin zuten harremana sendotzeko asmoz, baina berehala desagertu zen. Handik urtebetera, Herri Komunikabideei buruzko II. Jardunaldietan, hilabete batzuk lehenago Gipuzkoako aldizkari gehienek elkartzeari ekin ziotenetik egindako bileretan jorratu zituzten gaiak aurkeztu ziren. Ekimen horren xede nagusia herri-aldizkarien elkarterako



oinarrizko elementuak eskaintzea zen. «Lehenengoz, jakina, sinergia-guneaz eta topalekuaz mintzatu beharra dago, elkarren berri izatea, esperientziak trukatzeko eta kontrastatzeko, gai amankomunak jorratzea... oinarrizkoa baita. Ahal duenak ahal duenaren egoeratik irten, bakoitza bere zilbarrera begira egoteari laga eta jokatzeko egokitu zaigun rola joka dezagun» (Muniozgueren, 1993a: 190).

Horiek horrela, zenbait urtetan zehar Herri-Aldizkarien Elkarteak sortu-nahirik, baina ezer gutxi aurreratuta ibili ziren arlo horretan zihardutenak. Argi zegoen gauza bakarra ondokoa zen: gaiaren beraren garrantzia eta lehentasuna, eremu urriko prentsa bilduko zukeen koordinakunde bat hainbat gauzatarako interesgarria izango zatekeelakoan, besteak beste, «erakundeekiko eta merkatarietarako harremanak errazteko, subentzio-bideak bilatzeko, material teknologikoa erostean erraztasun handiagoak izateko, diru-laguntza bereziak, azkarragoak, indartsuagoak izateko, edukinari buruzko arazoak jorratzeko, jendearen prestakuntza hobetzeko, esperientziak ezagutzeko, gauzak eztabaidatzeko...» (Askoren artean, 1992: 66).

Edozelan ere, 1996ko ekainaren 15ean Topagunea eratu zen, herrietako euskara-elkarte eta herri-aldizkariak biltzen dituen erakundea. Federazio horren eginkizunik nabarmenena tokian tokiko aldizkariak zein euskara-elkarteak dinamizatu eta horiei zerbitzuak eskaintzea zen. Konkretuki, Topaguneak helburu nagusi hauek zituen jaio zenean<sup>5</sup>:

- Euskara-elkarte eta herri-aldizkarien mugimenduan etengabe sortzen ari ziren proiektu berrientzako harremangune finkoa sortzea.
- Antzeko gaien inguruko esperientziak eta ideiak trukatzeko topagune izatea.
- Baliabide ekonomikoen optimizaziorako kudeaketa zentralizatu bideratzea.
- Administrazioen eta bestelako erakundeen aurrean solaskide bakar eta errepresentagarria izatea.

1999ko maiatzean 37 euskara-elkartek (Gipuzkoatik 16, Bizkaitik 14, Arabatik 3, Nafarroatik 3 eta Ipar Euskal Herritik 1) eta 31 herri-aldizkariak (Arabatik 2, Bizkaitik 8, Gipuzkoatik 19 eta Nafarroatik 2) osatzen zuten Topagunea, euskara-elkarteetako 7.000 bazkide inguru biltzen zituelarik eta herri-aldizkarien bidez 300.000 irakurle ingururengana iritsiz.

Herri-aldizkarietara dagokienez, haien arteko harremanak eta elkarlana bultzatu nahi zen, esperientziak eta ideiak elkarrekin trukatzeko asmoz. Arlo horretan publizitate-zerbitzu bat ere sortu zuten, *Gune Press* izenekoa, herri-aldizkarien publizitatea merkatu berrietara zabaltzeko, ordura arte eskuratu ezin izan zuten publizitatea lor zezaten. Izan ere, herriko merkatarien publizitatea eskuratzeko ez dute arazorik izaten tokian tokiko aldizkarietara, baina Euskal Herriko publizitatea egiten duten salerosleak ez dira normalean herri-aldizkarietara hurbiltzen. Horixe zen, hain zuzen, *Gune Press*-en helburua: bezero horiei herri-aldizkarien inguruko informazioa eskaintzea, bertan publizitatea sar zezaten. Dena dela, publizitate zerbitzu hori bertan behera utzi behar izan zuten, aldizkari bakoitzaren baliabideak, zerbitzuak eta asmoak desberdinak zirelako.

---

5. Topaguneak 1999an Interneten zuen web orrialdetik hartuta: <http://www.jalgi.com/topagunea>.

Bestalde, Topagunea Herri-Aldizkarien Elkartek zabaltzen dituen zerbitzuen artean aipatzekoa da *Topaberrri* barne-buletina. Bertan Topaguneko zein elkartee-tako eta herri-aldizkarietako esperientzia eta egitasmo interesgarrien berri ematen dute.

Horrez gain, Topaguneak hainbat erakunde pribatu zein publikorekiko kolabo-razioa bideratu du. Elkartearen orduko lehendakariaren esanetan,

guk uste dugu elementu edo pieza estrategikoa garela euskararen normaliza-zioan eta euskalgintzan, hain zuzen ere, euskaldungoaren trinkotzean eta harreman sareetan eragina eta interbentzio zuzena daukagulako. Eta Administrazioari eta entitate laguntzaileei egiten diegun planteamendua hori da; har gaitzabela puzzle horretako pieza estrategiko moduan, bai diru banaketa eta bai politika finkatze-rakoan<sup>6</sup>.

Azkenez, Topaguneak jardunaldi, mintegi eta formakuntza-ikastaroak antolatu dituela esan beharra dago, euskara-elkarte eta herri-aldizkarietako kideei zuzen-duta; eta aurrera begira ere ildo beretik jarraitu dukete.

## **6. Herri-aldizkarien garrantzia euskararen normalkuntza-prozesuan**

Euskarazko hedabideak aztertzerakoan egitasmo zabalago baten barruan kokatu behar ditugu: euskararen normalkuntzaren plangintzaren barnean, alegia: «ezin daiteke euskarazko prentsarekin gertatzen ari dena ondo ulertu euskara normalizatzeko alorrean gertat(u)zen denaz xuxen jabetu gabe» (Zalakain, 1992: 177).

Zalantzarik gabe, edozein hizkuntzaren normalkuntzan kazetaritzak izugarriko garrantzia dauka. Hizkuntz komunitateen biziraupena ziurtatzeko, beharrezkoa da erreproduktio soziala bermatzea. Hori lortzeko, gizarteko hainbat esparrutan finkatu behar da euskararen erabilera, besteak beste hedabideetan.

Hizkuntza minorizatuek erabiltzen dituzten komunikabideak funtsezko tresnak dira beren normalizazioa lortzeko, gizartearen hizkuntz eredu diren aldetik. Ildo horretan agertu zen Mari Karmen Garmendia, orduko Hizkuntza Politikarako Idazkari Nagusia, 1990ean Euskarazko Kazetaritzari buruz egin ziren Jardunaldien sarreran: «Bistan da gaurkotzeko eta eguneratzeko gai den neurrian egingo duela aurrera euskarak. Kazetagintza da euskararen normalkuntza bermarazi dezakeen iturrietako bat. Iturria kutsatzea baino ez genuke behar, hainbat eta hainbat ahale-gin alperrik galtzeko. (...) Gure gizartea bere onera ekar dezaten euskararen nor-malkuntzak euskal komunikabideak behar ditu» (Euskal Kazetarien Jardunaldiak, 1991: 12).

Euskarazko hedabideak ditugu, beraz, gure hizkuntzaren etorkizuna sosten-gatuko duten elementu garrantzitsuenetarikoak. Baina komunikabide guztien artean, bereziki ekimen publikoei dagokie euskararen jarraipena bermatzea.

Son los sistemas públicos quienes pueden fomentar este desarrollo ya que las empresas privadas, por lo general, se guían por unos intereses económicos y esta tarea no está dentro de las que definen su actividad, propiamente dicha, mientras

---

6. Fernando Muniozguren. *Egunkaria*, 1998ko urtarrilak 30, 14. or.

que los mass-media públicos de cada Comunidad Autónoma deben definirse por una política cuyo objetivo es recuperar la lengua y la cultura, y para ello deben tomar aquellas medidas que lo permitan<sup>7</sup> (Peñafiel, 1989: 152-153).

Euskarazko herri-aldizkariaren kasuan, nahiz eta gehienak ekimen pribatuak izan, erakundearen parte-hartzea behar dute aurrera ateratzeko, diru-laguntzak jasotzeko orduan, batez ere. Hori dela eta, Carmen Peñafielek aipatzen duen hedabide publikoaren funtzio berbera ezarri ahal zaie: hizkuntza eta kultura berreskuratzea, alegia; hasierako helburua ez baita etekin ekonomikoak bilatzea, euskararen alde lan egitea baizik.

Komunikazio-sistema modernoan, identitate kultural eta linguistikoa mantendu ahal izateko ezinbestekoa da tokian tokiko hedabideak izatea. Kataluniarantz begiratzen badugu, bertan, historikoki, katalanaren erabilera publikoa normaltzeko, eskualdeko prentsa ezinbesteko faktorea izan da, eta azken urteetan hizkuntza horren erabileraren normalakuntza susper dadin lagundu du (Guillamet, 1993: 231, 234). Horixe da, preseski, herri-prentsaren eginbehar garrantzitsuenetarikoa, Fernando Muniozgiuren hitzetan laburbilduta (1993a: 190):

Gureak produktu zabalak eta irentsigarriak izaki orendako, hizkuntza normalizaziorako ezinbesteko tresna bihurtzen dihardute, euskaldungoa euskarazko kultur produkzioaren abenturan sartuz eta beste komunikabide haundiagoetarako bezeroak eginez. Aldi berean, kazetaritza zereginetan eta idazlanean demaseko jendetza jarri dugu. Horrezaz gain ez da komeni ahaztea euskara hutsean egindako publizitatearen zifrak.

Alde kualitatibotik begiratu gure informazioa, subjektuan oinarriturikoa, gertukoa, memoria historikoa eta idiosinkrasiaz jositako zertzeladaz eskaintzen dugunez, afektiboa gertatzen da. Ondorioz integrazioarako eta gizarte kohesiorako elementu eta euskarri erreferentziala bilakatzen dihardu herri-prentsak.

Zer da hau guztia lehen graduko HERRIGINTZA eta euskaldungoa trinkotzeko zubiak eraikitzea baino?

Lehen aipatu dugu Euskal Herrian argitaratzen diren herri-aldizkari gehienetan euskara erabiltzen dela, bai euskara hutsa, bai erdararekin batera. Izan ere, «gaur egungo prentsa lokalean gaztelera hutsezko aldizkariak plazaratzea ez da ohizkoa; badago, gutxi edo asko, euskararekiko zor bat bai euskararen presentzia txikia den tokietan, eta zer esanik ez, handia duen tokietan» (Elkoroberezibar, 1992: 15).

Hala ere, euskara hutsezko agerkariak nagusi dira elebidunekin alderatuz, elebitasuna ez baita oso komenigarria aldizkari bat egiteko, askotan geratu delako agerian, denbora pasa ahala, gaztelania nagusitzen dela eta euskarak espazio guztia galtzen duela. Iritzi horretakoa da Jexuxmari Zalakain (1992: 597). Beraren ustez «Elebitasuna prentsa idatzi mailan, euskarazko prentsaren kaltetan izan da. Elebitasuna eta euskararen auzia prentsan aldi berean soluzionatzea ezinezkoa

---

7. «Sistema publikoek suspertu ahal dute garapen hau, enpresa pribatuak, oro har, interes ekonomikoetan oinarritzen baitira eta eginbehar hau ez da euren arlokoa. Autonomia Erkidego bakoitzeko masa-komunikabide publikoek, aitzitik, hizkuntza eta kultura suspertzearen aldeko politika egin behar dute eta horretarako laguntzen duten neurriak hartu behar dituzte». Egileak itzulia.

bilakatu da (...) Elebitasuna, praktikan, erdaran sinisten dutenen zeregina da. Euskararen etorkizuna bermatu nahi dutenen zeregina, gune euskaldunak sortzea da».

Argi dago herri-aldizkari gehienek euskara aukeratzen dutela komunikatzeko. Hedabide handietan gure hizkuntzak oso presentzia urria izanik, prentsa lokalaren esparrua da aproposena euskara garatzeko eta normalizazioaren bidean jartzeko.

Tokian tokiko agerkarietan erabiltzen den euskarari erreparatzen badiogu, hainbat eredu desberdin dagoela konturatuko gara. Izan ere, aldizkari batzuk batuaz daude idatzita, beste batzuek bertako euskalki edo azpieuskalkiak soilik erabiltzen dituzte idatzeko, eta beste batzuek, ordea, batua zein inguruko euskalkiak aukeratzen dituzte.

Gure hizkuntzaren aberastasuna zabaltzeko asmoz, euskara batua zein euskalkiak erabiltzearen garrantziaren aipamenak askotan agertzen dira «nazio mailako estandarrak eta euskalkiak elkarren ondoan bizi behar dutela eta bizi daitezkeela bizikidetasunean, zeregin funtzionalaren oreka medio, elkar elikatuz» (Muniozguren, 1993b: 232).

Bestalde, eremu urriko hedabideen ezaugarri nagusia hurbiltasuna da, eta hizkuntza bera da hurbiltasun hori islatzeko tresnarik aproposena; beraz, ezin da ulertu mota honetako komunikabideak lekuko hizkuntzaren formak erabiltzen ez badituzte. Izan ere, «herri komunikabideak egokiak dira eskualde eta arantako euskalkiak eta lekuan lekuko barietatea erabiltzeko, beti ere nazio-mailako grafia errespetatuz. Are gehiago, tokian tokiko irakurlearengana iristeko, mezu-hartzai-learen konfiantza eta fidagarritasuna irabazteko, bertoko euskalkia erabiltzea bezalakorik ez dago» (Ramírez de la Piscina, 1998: 237-238).

Kontuak kontu, euskarazko herri-aldizkarietan tokian tokiko hitz, esamolde eta abar sartzen diren arren, praktikak erakutsi digu bertoko euskalkiarekin batera gehienbat estandar moduan nagusituta dagoen euskaraz idazten dutela aldizkariak (Sarasua, 1996a: 183).

## **7. Herri-aldizkarien loraldiaren ikuspegi orokorra**

90eko hamarkadan bi garai desberdin ikus daitezke tokian tokiko agerkarien arloan. Hasierako sei edo zazpi urteetan euskarazko herri-aldizkari gehienak jaio ziren, batez ere herrialdeko prentsak eskaintzen ez zuena hedatzeko asmoz. Aldizkari batzuk modari edo joerari jarraitzeko sortu ziren, eta horregatik lan-talde gehienen ardura bakarra aldizkaria garaiz egin eta banatzea zen. Hazkunde kuantitatiboa izan zela esan daiteke. Aldizkarien funtzio nagusiak honako hauek ziren: euskararen normalkuntzan lagungarri izatea eta herriko informazioa eskaintzea.

Aitzitik, 1995. urtetik aurrera, gutxi gorabehera (kasu batzuetan lehenago eta beste batzuetan geroago), tokian tokiko agerkarien hazkunde kualitatiboa gertatu izan da. Izan ere, aldizkariak kalitatea hobetzeko ahalegin bereziak egin dituzte: diseinu erakargarriagoa egin, edukiak aniztu, idazkera gehiago zaindu, herritarren partaidetza sustatu, euskarazko publizitatea bultzatu, beraien arteko harremanak

indartu... Hori dela eta, denbora iragan ahala euskaraz izatea bigarren mailara igaro da, eta aldizkariak beste funtzio batzuk hartu dituzte euren gain: herritarren arteko harremanak bultzatzea, iritzi desberdinen bilgunea izatea, jendearen interesetatik gertu dauden edukiak hedatzea, kultura bultzatzea, informazio erabilgarria eskaintzea, beste hedabideetako informazio-iturria izatea eta euskarazko publizitatea suspertzea.

Bestalde, euskarazko herri-aldizkariak hedabideen merkatuan euren lekua aurkitu dute. Kasu batzuetan beren esparruan hurbileko informazioa hedatzen duten komunikabide bakarrak dira, zuzeneko lehiakiderik izan gabe. Orduan, hedabide handiagoak uzten dituzten hutsuneak eta akatsak betetzen saiatzen dira, herriko informazioa euskaraz jasotzeko aukera emanaz. Beste udalherri batzuetan badaude gertuko edukiak eskaintzen dituzten beste hedabide batzuk, gaztelaniaz idatziak, edota kolektibo batzuen interesak jorratzen ez dituztenak. Kasu horietan produktua hobeto definitu behar izan dute, eta aldizkaria beste ikuspuntu batetik egin (kulturari buruzko gaiak indartuz, adibidez).

Euskararen normalizazioari dagokionez, herri-aldizkariak euskararen erabilera normaltzen lagundu dute, euren esparruan euskara ohiko hizkuntza bihurtu dute eta. Izan ere, agerkari hauen orrialdeetan euskara normaltasun osoz erabiltzen da, herritarren artean mota guztietako gaiak zein kazetaritza-generoak zabaltzeko (eta ez bakarrik gai arinak edo genero errazak), gure hizkuntza oso aberatsa dela erakutsiz.

Euskararen Normalkuntzarako Legeak euskarazko herri-aldizkariak ugalketan eragina izan duela esan daiteke. Legearen eragina dela eta, erakunde publikoek emandako diru-laguntzak finkatzen joan dira aztertutako hamarkadaren lehenengo urteetan. Aldizkari lokal askok diru-laguntza horiek aprobetxatu zituzten kaleratzeko.

## **8. Hirugarren milurtekoak ekarritako aldaketak**

Milurtekoaren hasierako urteetan aldaketa nabarmenak gertatu dira euskarazko herri agerkariaren arloan. Hain garrantzitsuak dira aldaketa horiek, ezen aldizkariak, eta orokorrean euskarazko prentsa lokala, aro berriaren atarian daudela esan baitaiteke.

### **8.1. Aldizkari berriak eta maiztasun handiagoak**

Azken urteetan euskarazko aldizkari berri batzuk agertu dira, besteak beste *Danbolin* hilabetekaria Zestoan, *Kronika* egunkaria Hernanin, *Arkalaz* hilabetekaria Amorebieta-Etxanon, *Prest!* hilabetekaria Deustualdean, *Txaparro* hamaboskaria Zarautzen eta *Aikor!* hilabetekaria Txorierrin.

Bestalde, aurretik kaleratzen ziren beste aldizkari batzuek beren maiztasuna aldatu egin dute eta orain lehen baino maizago argitaratzen dira. Tolosaldeko *Galtzaundi* eta Orio eta Aiako *Karkara* aldizkariak hilabetekari izatetik hamaboskari izatera pasatu dira. Lasarte-Oriako *Txintxarri* hamaboskaria, berriz, astekari bihurtu da.

## 8.2. Eskualdeko hedabideak bultzatuz

### 8.2.1. Goiena: lehen komunikazio-kooperatiba

2000ko ekainean Euskal Herriko lehen komunikazio-kooperatiba agertu zen: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarte. Debagoieneko zortzi herrietako (Arrasate, Eskoriatza, Elgeta, Leintz Gatzaga, Antzuola, Bergara, Oñati eta Aretxabaletako) eta Aramaioko euskara-elkarteek sortu zuten, ondoko helburuarekin: elkarlanean, komunikabideen eta telekomunikazioaren alorrean etorkizunari errazago aurre egiteko eta eskualde osorako euskarazko euskarri berriak bultzatzeko.

Goienak bere gain hartu du euskara-elkarteen esku zeuden herri-hedabideen ardura: *Arrasate Press*, *Ze barri?*, *Goibekokale*, *Kontuola*, *Berrigara*, *Aretxagazeta* eta *Txirritola* (ez, ordea, Oñatiko *Kontzejupetik*). 2001eko martxoaren 5ean euskara-elkarteekin sinatutako hitzarmenaren ondorioz, kooperatibak kudeatzen ditu zazpi aldizkari horiek. Bailarako eta Aramaioko euskara-elkarteak izan dira bazkide sortzaileak, baina udalak (Bergara, Oñati eta Elgetakoa izan ezik), inguruko enpresak eta baita langileak ere bazkide laguntzaile dira.

2000ko abenduaren 1ean *Goienkaria* jaio zen, astero kaleratzen den agerkaria. Bertan, tokian tokiko berriez gain, bailarakoak ere jasotzen dira. Bere formatua berria da euskarazko prentsa lokalaren arloan, DIN A4-koa izan beharrean DIN A3 edo egunkari formatukoa delako eta prentsa-paperean egiten delako. Banatzen duen ale-kopuruari dagokionez ere, agerkari honek ez du parekorik Euskal Herrian banatzen diren gainerako tokian tokiko aldizkariekin; idatzizkoen artean tiradarik handiena duena da (20.000 ale). Hasierako hilabeteetan herri-aldizkariak ohiko maiztasunarekin kaleratzen baziren ere (*Arrasate Press* eta *Berrigara* astero, *Aretxagazeta* eta *Kontuola* hamabostean behin, *Goibekokale* eta *Ze barri?* hilabetero, eta *Txirritola* hiru hilabeteetan behin), 2001eko urriaren 19an aldizkari guztiak *Goienkaria*-n bildu ziren, hiru ediziotan, eta astero argitaratzen hasi ziren. Horrela, orain *Goienkaria*-rekin, edo guztientzako berdina den atalarekin batera, barruan herrietako edizioa jasotzen dute irakurleek astero-astero. Horretarako, aldizkariak ere itxuraldatu dituzte, eta prentsa-formatua eman diete. *Goienkaria*-ren azken helburua egunkari bihurtzea da.

Aldizkariekin batera, Goienaren barnean Telebista eta Arrasate Irratia biltzen dira. Beraz, informazio lokala euskaraz jorratzen duen enpresa multimedia garatuena dela esan daiteke. Era horretan, bailarako eta kanpoko merkatariek eskualdean saltzeko duten biderik eraginkorra da, euskaraz sortzen duen publizitate-agentziarik indartsuena, eta Debagoiena munduratzeko tresna paregabea. 2001ean 3.000 bazkiderekin, 40 langilerekin eta 235 milioi pezetako aurrekontuarekin abiatu zen Goiena.

### 8.2.2. Eraz astekariaren aldaketak

Orain arte Durangaldeko euskara hutsezko astekari bakarra izan den *Eraz*-en lekua 2001eko azaroaren 9tik aurrera *Anboto* astekari berriak hartu du. Durangaldeko 11 herrietara heltzea eta harpidedun-kopurua 10.000 lagunera iristea da proiektu berriaren helburu nagusia. Horretarako, astekariaren formatua aldatu

dute, egunkari formatua hartuz, eta tirada biziki igo da, *Eraz*-en 3.000 aletik oraingo 16.000ra. *Anboto*-k 24 orrialde ditu eta bertan edukien aldetik ere aldaketak egin dituzte.

Prensa formatua hartzearen arrazoia, *Goienkaria*-ren kasuan bezalaxe, honako hau da: inprentako gastuak txikiagoak direnez, ale gehiago atera daitezke eta, gainera, horrela leku gehiago dago herri guztietako informazioa lantzeko.

### **8.3. Etorkizunerako bidea**

Goienak eman duen urratsa etorkizunean tokian tokiko hedabideek eman beharreko pausua da, informazio lokalaren esparruan sartzen ari diren interes ugariari aurre egin ahal izateko. Aldizkariak eskualdeka antolatu eta landu behar dira, euren egiturak sendotuz, biztanle- eta merkatu-kopuru handiagoari egokiago erantzuteko.

Herri-hedabideak eskualdeetako enpresa multimedia modernoetan bildu behar dira, eta hurreko komunikazioaren esparru guztiak profesionaltasunez landu, elkarrekin lan egitearen ondorioz sortzen diren sinergiak aprobetxatzeko. Mikel Irizar Goienako Zuzendari Nagusiaren esanetan, «oso ona litzateke eskualdeka komunikazio talde sendoak sortzea, horizontalean beraien artean eta bertikalean euskarazko hedabide nazionalekin jardungo dutenak. Kanpotik eta erdara ezberdinetan iritsiko zaigun uholdearen aurrean, euskal gizartearen biziraupenerako sekulako tresna litzateke hori»<sup>8</sup>.

Zalantza bakarra sortzen zait: egokia izango al da tokian tokiko egunkariak sortzea? Kontua ez da nahiko informazio sortuko den ala ez. Nire ustez, agerkari lokalak egokiagoak dira gehienez astean behin ateratzeko. Izan ere, tokian tokiko informazioa ez da goizerako ezagutu behar den informazio beroa, ez dago hain lotuta egunero gertatzen denarekin. Herri-aldizkariak, arlo honetan, egunkari orokorretatik bereizi behar dira, euren funtzioa gertutasunean oinarritutako harreman soziala mantentzea baita. Edukiak, beraz, asteburuetan lasaiago irakurtzeko idatzi behar dira, informatzeko, entretenitzeko edo hausnartzeko aukera izan dezaten irakurleek.

---

8. *Goienkaria* 27. zenbakia, 2001eko ekainaren 22a; 9. or.

## Eranskina: Euskal Herriko herri-aldizkarien errolda

IZENA	ARGITARATZAILEA	MAIZTASUNA	ZABALKUNDE-EREMUA
Aikor!	TOTOAN Txorierriko Euskara Elkarleen Federazioa	hilabetekaria	Txorierr (Zamudio, Lezama eta Larrabetzu)
Aiurri	M. Larramendi K.B.	hamaboskaria	Beterri-Aiztondo Mankomunitatea (Aduna, Andoain, Billabona, Larraul eta Zizurkil)
Akatz	Ikuspegi Kultur Taldea	hamaboskaria	Bermeo
Anboto	Anboto Komunikabideak	astekaria	Durangeldea
Aretxagazeta	Goiena Komunikazio Zerbitzuak Koop. E.	astekaria	Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga
Arkalaz	Zorrontzako Euskara Elkarlea	hilabetekaria	Amorebieta-Etxano
Arranondo	Arranondo Kultur Alkarlea	hilabetekaria	Ondarroa, Berriatua, Markina
Arrasate Press	Goiena Komunikazio Zerbitzuak Koop. E.	astekaria	Arrasate, Aramaio
Artzape	Gure Txeru elkarlea		Getaria
Azpeitian, Zer?	Azpeitiko Udala	hilabetekaria	Azpeitia
Baleike	Baleike Kultur Elkarlea	hamaboskaria	Zumaia
Barren	Izarra Kultur Elkarlea	astekaria	Elgoibar, Mendaro, Altzola
Berrietan Blai	Bermeoko Udala	hilabetekaria	Bermeo
Berrigara	Goiena Komunikazio Zerbitzuak Koop. E.	astekaria	Bergara, Antzuola, Elgeta
Berton	Batana Batu Kultur Elkarlea	hilabetekaria	Santutxu, Begoña, Otxarkoaga, Txurdinaga, Bolueta
Bolo-Bolo		hiruhilabetekaria	Ondarroa
Branka	Arnasa eta Abaraska Euskara Elkarleak	hilabetekaria	Pasaia
Danbolin	Danbolin Zulo Elkarlea	hilabetekaria	Zestoa
Drogeteniturri	Euskal Birusa Elkarlea	hilabetekaria	Ermua, Mallabia
El Social		hilabetekaria	Basauri
Ene Bada!	Ene Bada! Kultur Elkarlea	hilabetekaria	Legazpi
...eta kitto!	...eta kitto Euskara Elkarlea	astekaria	Eibar, Ermua, Soraluze
Euskarri	Sasiburu Elkarlea	hiruhilabetekaria	Barakaldo
Eutsi	Deiadar Kultur Elkarlea	hilabetekaria	Gernika eta beste 16 herri
Galtzaundi	Galtzaundi Euskara Taldea	hamaboskaria	Tolosaldea
Geu	Geu Elkarlea	hilabetekaria	Gasteiz



Goibekokale	Goiena Komunikazio Zerbitzuak Koop. E.	astekaria	Elgeta, Bergara, Antzuola
Goienkaria	Goiena Komunikazio Zerbitzuak Koop. E.	astekaria	Debagoiena eta Aramaio
Goierritarra	Goierritarrak Kultur Elkartea	hamaboskaria	Goierri Bailara
Guaixe	Bierrik Elkartea	hilabetekaria	Sakana
Gure Artean		hilabetekaria	Arratia (Ubidea, Zeanuri, Areatza, Artea, Igorre, Aranzazu, Dima, Lemoa, Bedia), Usansolo eta Zornotza
Hernaniko Kronika	Dobera Euskara Elkartea	egunkaria	Hernani
Herrietan	Zuiako Koadrila	hiruhilabetekaria	Zuiako Eskualdea: Aramaio, Arrazua- Ubarandia, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia, Zuia
Hondarribia	Udal Euskara Azpibatza	hilabetekaria	Hondarribia
Irunero	TB. S.L.	hilabetekaria	Irun
Irutxulo	Donostiako Komunikabideak E.M.	astekaria	Donostia
Kaixo	Urretxuko Udala	hilabetekaria	Urretxu
Kaixo		hilabetekaria	Nafarroako Erriberan
Kantillape	Itsasondoko Udala	hilabetekaria	Itsasondo
Karkara	Karkara Kultur Elkartea	hamaboskaria	Orio, Aia
Kontuola	Goiena Komunikazio Zerbitzuak Koop. E.	astekaria	Antzuola, Bergara, Elgeta
Kontzejupetik	Oñatiko Udala	hilabetekaria	Oñati
Lau haizetara	Lau Haizetara Euskaldunen Elkartea	hilabetekaria	Errenteria-Orereta
Lokotxa		lauhilabetekaria	Zubieta, Usurbil, Lasarte
Mailope	Araitz-Beteluko Euskara Batzordea	hilabetekaria	Araitz, Betelu, Larraun eta Lekunberri
Maxizatzen	Maxizatzen Euskara Elkartea	hamaboskaria	Azkoitia
Murugarren	Gareseko Euskara Taldeak	hiruhilabetekaria	Gares eta Iruñerria.
Noaua!	Noaua! Kultur Elkartea	hamaboskaria	Usurbil
Nontzebarri	Mungia Euskaldunduz Elkartea	hilabetekaria	Mungialdea
Oixe!	Bierri Elkartea	astekaria	Sakana
Orratz!	Orratz! Kultur Elkartea	hilabetekaria	Lezo
Otamotz	Zintzo-Mintzo Euskaltzale Elkartea	hilabetekaria	Zumarraga, Urretxu

Pil-pilean	Pil-pilean Kultur Elkartea	hiruhilabetekaria	Soraluze
Prest	Berbaizu Euskara Elkartea	hilabetekaria	Deustualdea
Pulunpe	Imotz, Basaburu eta Ultzamako Euskara Batzardeak	hiruhilabetekaria	Imotz, Basaburu, Ultzama, Anue, Odieta bailarak
Tolosaldean Egunero	Tolosaldeko Komunikabideak	egunkaria	Tolosaldea
Tiki-Ttaka	Tiki-Ttaka Euskara Elkartea	hiruhilabetekaria	Arabar Errioxa
Ttipi-ttapa	Ttipi Ttapa Kultur Taldea	hamaboskaria	Nafarroako iparmendebalde (24 udalerrri) eta Sara (Lapurdi)
Txaparro	Txaparro Kultur Elkartea	hamaboskaria	Zarautz
Txapla-Txapla		hilabetekaria	Gorliz eta Plentzia
Txintxarri	Ttakun Euskara Elkartea	astekaria	Lasarte-Oria
Txirritola	Goiena Komunikazio Zerbitzuak Koop. E.	astekaria	Aramaio, Arrasate
Txoriberri	Txorierriko Mankomunitateko Euskara Zerbitzua	hilabetekaria	Txorierrri (Larrabetzu, Lezama, Zamudio, Derio, Loiu eta Sondika)
UK	Boluntzarreta	hilabetekaria	Uribe Kosta
Uztarría	Uztarría Kultur Koordinadora	hilabetekaria	Azpeitia
Ze barri?	Goiena Komunikazio Zerbitzuak Koop. E.	astekaria	Eskoriatza, Leintz Gatzaga, Aretxabaleta
Zer diño?	Berbaz Kultura Alkartea	hiruhilabetekaria	Orozko
Zorrotz Morrotz		hiruhilabetekaria	Zorrotza (Bilbo)

## Bibliografia

- Agirreazaldegí, A. (1993): "Euskarazko herri-aldizkari bat zure herrirako", in Askoren Artean, *Herri komunikabideei buruzko II. Jardunaldiak*, ARKO, Arrasate, 7-14.
- Aranguren, A. (1999): *Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian*, Doktore-tesi argitaratu gabea, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.
- Aranzabal, J. (1998): "Euskarazko herri prentsaren bilakaera", *Euskonews & Media*, 1998 / 10-30 / 11-6, 8. zkia. <http://suse00.su.ehu.es/euskonews/0008zkb/frmedia.htm>.
- , (1992): "Herri aldizkari baten taxuketa", *Jakin*, martxo-a-apirila 1992, **69**, 67-80.
- Askoren Artean. (1992): "Euskal prentsa lokalaren problematika", *Jakin*, martxo-a-apirila 1992, **69**, 51-66.
- Cantalapiedra, M. J. (1996): *La información local en los periódicos de Bizkaia*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.
- Díaz Noci, J. (1995): *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1839)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Elkoroberezibar, M. A. (1992): "Prentsa lokala Euskal Herrian", *Jakin*, martxo-a-apirila 1992, **69**, 11-37.
- Euskal Kazetarien Jardunaldiak. (1991): *Euskal Kazetarien Jardunaldiak: Donostia, 1990eko maiatzak 28 eta 29*, Eusko Jaurlaritzak, Gasteiz.
- Guillamet, J. (1983): *La premsa comarcal. Un model català de periodisme popular*, Generalitat de Catalunya, Bartzelona.

- Irigoién, J. M. (1993): "Herri aldizkarien ezarpena eta zabalpena", in Askoren Artean, *Herri komunikabideei buruzko II. Jardunaldiak*, ARKO, Arrasate, 179-186.
- Martín Serrano, M. (1982): *El uso de la comunicación social por los españoles*, Centro de Investigaciones Sociológicas, Madril.
- Muniozguren, F. (1993b): "Herri, eskualde eta hirietako euskarazko aldizkariak koordinatze-ko elkarteak", in Askoren Artean, *Herri komunikabideei buruzko II. Jardunaldiak*, ARKO, Arrasate, 187-194.
- , (1993b): "Lekuan-lekuko euskara eta standarraren trataeraz", in Askoren Artean, *Herri komunikabideei buruzko II. Jardunaldiak*, ARKO, Arrasate, 231-235.
- Muniozguren, F. (1997): "Eremu urriko euskal prentsaren bideetan barrena", *Jakin*, azaro-abendua 1997, **103**, 73-79.
- Muxika Arrieta, J. (2000): "Euskaraz idatzitako komunikabide lokalen egoera", *Eleria* **5**, 125-130.
- Peñafiel, C. (1989): "Las radios autonómicas: hacia una política de normalización lingüística y cultural", in J. C. Miguel, *La comunicación en las naciones sin estado*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa, 143-162.
- Ramírez de la Piscina, T. (1998): *Kazetari-I@na Euskal Herrian. Interpretaziorako eta espezializaziorako abiaburuak*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- Sarasua, J. (1996a): *Bi begiratu euskarazko kazetari hizkerari*. Doktore-tesi argitaratu gabea, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.
- , (1996b): "Euskarazko prentsaren diagnostikoa", *Jakin*, iraila-urria 1996, **96**, 11-28.
- Zalakain, J. (1992): *Euskal prentsa herri proiektua da*, Doktore-tesi argitaratu gabea, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.
- , (1994): "Prentsa nazionala eta prentsa lokala", *Uztaro*, 1994, **12**, 55-65.
- Zalbidea, B. (1995): "Prensa local y gratuita", in B. Zalbidea eta J. C. Pérez Fuentes, *Comunicación, medios y mensajes*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa, 157-168.